

## I. ERANSKINA

### 2016ko APIRILAREN 15eko ERABAKIA

#### II-XI ERANSKINETAN ADIERAZITAKO "IKERKETAKO ZERBITZU NAGUSIEN GOI MAILAKO TEKNIKARIEN" LAN POLTSAK ZABALTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

##### Lehena.- Xedea eta oinarrizko elementuak.-

1.1.- Xedea.- Deialdi honen xedea da II-XI eranskinetan adierazitako "IKERKETAKO ZERBITZU NAGUSIEN GOI MAILAKO TEKNIKARIEN" lan poltsak zabaltzea, UPV/EHU n aldian baterako zerbitzuak emateko.

1.2.- Oinarrizko elementuak.

1.2.1.- Hautatutako langileek plaza hutsek sortutako premiak –arazko hornidura arte– eta aldian baterako premiak beteko dituzte. Plazaren edo premiaren eskakizun zehatzak kasu guztietan bete behar dira.

1.2.2.- Kasu bakoitzean, deitutako lanpostu edo premia jakinari dagozkion arduraldia eta ordainsariak emango dira.

1.2.3.- Lanpostuak UPV/EHUk hiru Lurralde Historikoetan dituen bulegoetako edozeinetan kokatu ahal izango dira.

1.2.4.- Hautatutako langileak dagokien espezialitateko "IKERKETAKO ZERBITZU NAGUSIEN GOI MAILAKO TEKNIKARIEN" lan poltsan sartuko dira, azken lekuan dagoen pertsonaren ondoren. Poltsa hori lan poltsak kudeatzeko araudiaren arabera erabiliko da.

1.2.5.- Aplikagarria den araudi orokorrez gainera, Lan Poltsei buruzko Erabakien xedapenak eta edukia aplikatuko dira, baita AZPko langileak kontratatzeke irizpideei eta prozedurari buruzko UPV/EHUko Gerentearen 2002ko uztailaren 1eko Zirkularra ere.

##### Bigarrena.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak.-

2.1.- Hautapen prozesuan parte hartu ahal izateke ezinbestekoa izango da honako baldintza hauek betetzea:

- a. Hamasei urte izatea, eta nahitaezko erretirorako adina bete gabe izatea.
- b. Parte hartu nahi den ikerketa zerbitzu nagusiaren lehiaketari dagokion eranskinetan zehaztutako tituluetakoa bat edukitzea edo hura jasotzeko eskubidea ordainduta izatea. Horrez gain, eranskin bakoitzean adierazitako baldintza zehatzak bete behar dira (II-XI eranskinak).
- c. Behar bezala betetako eskaera aurkeztea, eta parte hartzeko tasak ordaintzea, deialdiaren hirugarren oinarrian xedatutakoarekin bat etorruta.

Tasa bat ordaindu beharko da erabaki honen bidez deitutako hautapen prozesu bakoitzeko.

- d. Europar Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak egindako eta estatu espainiarrak berretsitako nazioarteko itunen ondorioz langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estaturen batekoa. Europar Batasuneko herrialdeetako nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, non eta ez dauden legez bananduta, eta baita ezkontideon oinordekoek ere, baldin eta ezkontideak ez badaude legez bananduta eta oinordekoak 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izan arren, ezkontideen mende bizi badira. Era berean, aurreko paragrafoetan aipatu ez diren eta estatu espainiarrean bizi diren atzerriko pertsonak ere parte hartu ahal izango dute. Hautatuak izanez gero, kontratua sinatu aurretik egiaztatu beharko dute badaukatela administrazio baimena kasuan kasuko jarduera egiteko.
- e. Eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea, betiere azaroaren 29ko 2013/1 Legegintzako Errege Dekretuaren aplikazioa eragotzi gabe, hau da, ezgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta inklusio sozialari buruzko Legearen testu bateratuaren aplikazioa. Lan poltsatik lanerako deia jasoz gero, interesatuak gaitasun fisikoa eta psikikoa egiaztatu beharko ditu, ziurtagiri edo osasun azterketaren bidez. Baldintza hori betetzea ezinbestekoa izango da, aldi baterako lan kontratua sinatzeko. Ezgaitasun fisikoa edo psikikoa duten pertsonak gainerako hautagaien baldintza berberetan onartuko dira, baldin eta egiaztatzen badute behar besteko gaitasuna dutela kasuan kasuko itxaron zerrendako lanpostuko zereginak betetzeko.
- f. Diziplina espediente baten bidez baztertuta ez egotea administrazio publikoetako edo autonomia erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetako zerbitzutik, eta ebazpen judizial baten bidez desgaituntza absoluturik edo berezirik ez izatea funtzionarioen eskalan sartzeko, edo lan kontratadun langileen kasuan, baztertuta edo desgaituta izan zen lanpostuko zereginen antzekoak betetzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea izanez gero, desgaiturik edo pareko egoeran ez egotea, edo baldintza berberetan enplegu publikorako sarbidea galarazten dion zigorrik edo parekorik jaso ez izana.
- g. Ezintasun edo bateraezintasunerako lege auziren batean sartuta ez egotea.

2.2.- Hautagaiek aurreko atalean aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, eta hautapen prozesu osoan eduki beharko dituzte, g) letran aurreikusitako bateraezintasun baldintza izan ezik; azken hori aldi baterako kontratua sinatzean bete beharko da.

### **Hirugarrena.- Eskaerak aurkeztea.-**

3.1.-Eredu ofizial eta normalizatuan aurkeztuko dira eskaerak, modalitate hauetakoren batean:

- a. Bide elektronikoz/Internetez, eskaera bidaltzeko aukeraz baliatuta, 3.1.c) oinarriak adierazitakoaren arabera inprimakia bete ondoren. Horrela aurkeztutako eskaerek jaso izanaren agiria eskuratu ahal izango dute, esleitutako erreferentzia zenbakiarekin eta tasak ordaintzeko abonu agiri batekin.
- b. Horretarako, bete egin beharko da Interneteko helbide honetan dagoen eredu: <http://go.ehu.eus/seleccion-pas>.

3.2.- Onartuak izateko eta, hala behar bada, dagozkion hautapen probetan parte hartzeko, hautagaiek eskaeraren atal guztiak bete beharko dituzte, eta dagozkion tasak ordainduta eduki beharko dituzte. Eskaeran jasota utzi beharko dute bigarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean, oinarri horren bigarren atalean aurreikusitako salbuespenetan izan ezik.

### 3.3.- Eskaerak aurkezteko lekuak:

Eskaerak (bide elektronikoa erabili ezean) UPV/EHUren edozein Erregistro Orokorretan aurkeztu ahal izango dira:

UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoak toki hauetan daude: Leioako Campusean, Errektoregoaren eraikinean (Sarriena auzoa, z/g, 48940, Leioa); Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzan (Ignazio M<sup>a</sup> Barriola eraikina, Elhuyar plaza, 1, 20028, Donostia); Arabako Campuseko Errektoreordetzan (Izardui Komandantea, 2, 01005, Gasteiz); eta Larrako Etxean (Agirre Lehendakariaren etorbidea, 83, 48015, Bilbo). Bulego horiek eta Erregistro Orokorra diren UPV/EHUko ikastegien zerrenda UPV/EHUren 2012ko maiatzaren 16ko Erabakian dago jasota (2012ko ekainaren 18ko EHAA), baita Interneteko honako helbide honetan ere:

[http://www.ehu.es/oficinas\\_registro.html](http://www.ehu.es/oficinas_registro.html)

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako campusetako Erregistro Orokorrek irekita egongo dira astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 13:00etara, goizez, eta 15:00etatik 16:30era, arratsaldez. Ostiraletan, udako lanaldi jarraituan eta Aste Santuan zein Gabonetan, 09:00etatik 13:00etara.

Erregistro Orokorreko bulegoak dagozkien jaiegunetan egongo dira itxita, ikasturte honetarako "Administrazio eta zerbitzuetako langileen lanaldiei, ordutegiei, oporraldiei eta baimenei buruzko zirkularrean" xedatutakoaren arabera.

Zirkularrari jarraiki, Erregistro Orokorreko bulego bakoitzak ondo ikusteko moduko toki batean argitaratuko du zein diren bere jaiegunak eta zein egunetan egoten den zerbitzua goizez bakarrik zabalik jendearentzat.

Bestalde, eskaerak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 38.4. artikuluan adierazitako moduetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskaera posta bulegoetan aurkezten duten interesdunek 5.8 atalean aipatutako epaimahaiaren helbidera bidali beharko dute, eta posta zerbitzuak arautzen dituen araudiaren (abenduaren 3ko 1829/199 Errege Dekretua) 31. artikulua bete beharko dute; hau da, eskaera gutun-azal ireki batean aurkeztu beharko dute, posta zerbitzuko funtzionarioak eskaerari zigilua eta data jar diezazkion, posta ziurtatuz bidali aurretik. Hala egin ezean, ez da epearen barruan aurkeztukotzat hartuko.

Bide elektronikoz bidalitako eskaerak ez dira aurkeztu behar. Nolanahi ere, tasaren ordainketa sistemak emandako abonua agiritik gabe egin bada, ordainketaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

#### 3.4.- Eskaera aurkezteagatikoko tasak ordaintzea:

Likidazio horri dagokion tasa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuaren arabera zehaztuko da (2007ko abenduaren 27ko EHAA, 248. zk.), eta **22,02 eurokoa** izango da.

Deialdi honetako 2.1.c) oinarrian aurreikusitako baldintza betetze aldera, tasa ordaindu beharko da, 3.5 oinarrian eskaerak aurkezteko ezarritako epearen barruan.

Hautatu nahi den hautapen prozesu bakoitzeko tasa bat ordaindu beharko da.

Eskaera bide elektronikoz egiten bada, tasa sistemak emandako abonua agiriaren bidez ordain daiteke, abonua Kutxabankeko edozein bulegotan aurkeztuta edo aipatutako entitatearen kutzazainetako barra kodeen irakurgailuak erabilia, erabilgarri egonez gero. Bide elektronikoz ere egin ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegokoaren ordainketa pasabidearen bidez.

Eskaera eskuz egiten bada, tasaren ordainketa ziurtagiria aurkeztu beharko da, eskaerarekin batera. Sarreraren "kontzeptuan" diru sarrera egiten duen pertsonaren NANA adieraziko da, baita parte hartu nahi den poltsari dagokion hautapen prozesuaren identifikazioa ere. Lehen atalean aipatutako tasa ordaintzeko kontu zenbakiak eskuko eskaeraren inprimakiaren atzealdean zehaztuta daude.

Eskaerak aurkezteko epearen barruan tasa ordaindu ezean, hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira. Tasa ordaintzeko epea ez da inola ere luzatuko.

Banku bulego kolaboratzaileetan tasa ordaintzeko eskaera aurkezteak ez du ordezkatuko, inola ere, eskaera aurreko ataletan ezarritakoaren arabera legezko epean eta eran aurkezteko izapidea.

3.5.- Eskaerak aurkezteko epea 10 egun naturalekoa izango da, 2016ko apirilaren 18tik apirilaren 27ra, biak barne.

3.6.- Ezgaitasunak dituzten hautagaiek horrela adierazi beharko dute eskaeran, horretarako jarritako laukia erabilia. Era berean, hautapen probak egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten denbora eta bitartekoen egokitzapenak adierazi beharko dituzte, halakorik behar badute. Aipatutako egokitzapenen beharra egiaztatzeko, ezgaitasuna aitortzen duen ziurtagiri ofiziala eta eskatutako egokitzapenei buruzko txostena aurkeztu beharko ditu eskatzaileak. Dokumentazio hori onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu aurretik aurkeztu beharko da, epaimahaiak dagozkion neurriak har ditzan. Ezgaitasuna duten pertsonatzat hartuko dira honako hauek: Ezgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideen eta haien Gizartetzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 4 . artikuluan definitutakoak; hau da, administrazioaren organo eskudunak % 33ko ezgaitasun maila edo hortik gorako mailaren bat onartuta dien pertsonak.

Eskaerari ez zaio dokumentaziorik erantsiko, egokitzapenak eskatu dituzten pertsoneri eta tasaren ordainagiriari buruz aurreko atalean ezarritakoa albo batera utzi gabe.

3.7.- Hautapen prozesu horietan parte hartzeak eskaeran jasotako datu pertsonalak erabiltzea onartzea dakar, behin-behineko eta behin betiko emaitzak iragarki oholetan eta web orrian argitaratzeko, baita horietatik aterako den lan poltsa kudeatzeko ere. Sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabiltzeko, deialdia egin duen organoarengana jo daiteke.

Nolanahi ere, eskaera izenpetzearekin batera, eskatzailea informatuta geratzen da, eta bere datuak aipatutako xedeetarako erabiltzeko onespina ematen du.

#### **Laugarrena.- Hautagaiak onartzea.-**

4.1.- Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta, gehienez ere, hilabeteko epean, UPV/EHUko gerentearen erabaki baten bidez, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da, UPV/EHUren web orrian: [www.ehu.es](http://www.ehu.es), administrazio eta zerbitzuetako langileen atalean. <http://go.ehu.eus/seleccion-pas>.

Baztertutako hautagaiek erreklamazioa jartzeko bost egun baliouduneko epea izango dute, aurreko paragrafoetan adierazitako bitartekoetan zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Interesdunak ez badu konpontzen, aipatutako epean, bera baztertzea ekarri duen akatsa, eskaera bertan behera uzten duela ulertuko da, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1. artikuluekin bat etorrira.

4.2.- Behin-behineko zerrendari erreklamazioak egiteko epea amaitutakoan, beste hamabost eguneko epean, onartutako hautagaien behin betiko zerrenda

argitaratuko da. Erabaki horren aurka berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da, UPV/EHUko gerentearen aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri, jurisdikzio horretako epaitegian, bi hilabeteko epean.

4.3.- Prozeduran zehar epaimahaiak jakiten badu hautagaien batek ez duela betetzen deialdian eskatutako baldintzaren bat, baztertu egingo du hautagai hori prozesutik, aurretik hari entzunda, eta egunean bertan jakinarazi beharko dio Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Zerbitzuari.

4.4.- Hautagaien behin-behineko eta behin betiko zerrendetan datu hauek agertuko dira: izena, bi abizenak eta NAN zenbakia, edo atzerriko hautagaien kasuan, pareko agiriarena. Horren helburu bakarra da fase bakoitzean prozesuaren publikitate printzipioa betetzea eta interesdunei jakinarazpenak egitea. Edonola ere, datuen erabilera hau bat dator datu pertsonalen babeserako legediarekin.

#### **Bosgarrena.- Epaimahaia.-**

5.1.- Hiru kide hauek osatuko dute epaimahaia: epaimahaiko buruak eta UPV/EHUko administrazioak izendatutako bi kidek; horietako bat idazkaria izango da.

Euskararen ezagutza maila zehazteko aurreikusitako probetarako, HAEEko ordezkari bat izendatutako da.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendarekin batera jakinaraziko da deialdi hau arautuko duen epaimahaia nortzuek osatuko duten.

5.2.- Edonola ere, epaimahaiak aholkularien laguntza eskatu ahal izango du, deialdiaren hautapen prozesuan aurreikusitako probaren baterako edo gutzietarako. Aholkulariak beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira.

5.3.- Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutako kideen botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketa izanez gero, epaimahaiko buruaren botoak erabakiko du.

5.4.- Epaimahaian bi ordezeko egongo dira, titularrak izendatzearekin batera izendatu beharko direnak. Epaimahaiko buruaren kasuan izan ezik, ordezekoek titularren kalitate bera izango dute.

5.5.- Epaimahaia ezingo da osatu, ezta aritu ere, epaimahaiko burua eta idazkaria, edo hala badagokio, haien ordezekoak, eta gutxienez kideen erdiak (titularrak edo ordezekoak) bildu ezean.

5.6.- Epaimahaiko buruaren eta bere ordezekoaren kargua hutsik badago, izendatutakoak ez badaude edo lege arrazoiren bategatik epaimahaian egon ezin

badira, maila, antzintasun eta adin handieneko epaimahaikideek ordezkatu dituzte, hurrenkera horretan.

Idazkariaren kargua hutsik badago, izendatutakoa ez badago edo lege arrazoiren bategatik epaimahaian egon ezin bada, beste epaimahaikide batek, besteek gehiengoz aukeratutakoak, ordezkatu du.

5.7.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden epaimahaikideek ez dute prozeduran parte hartuko, eta UPV/EHUko gerenteari emango diote horren berri.

Era berean, egoera horietakoren bat gertatuz gero, interesdunek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, lege beraren 29. artikuluari jarraiki.

5.8.- Epaimahaiak Bizkaiko Campusean izango du helbidea, jakinarazpenetarako eta gainerako gorabeheretarako: Pertsonaleko Gerenteordetza, AZPkoen Zerbitzua, Langileak Hautatu eta Lanpostuak Betetzeko Atala (Sarriena auzoa, z/g, 48940, Leioa).

#### **Seigarrena.- Hautapen prozesuaren garapena.-**

6.- Hautapen prozesuak fase hauek izango ditu:

##### **6.1.- Oposizioa**

Oposizio fasean honako ariketa hauek egin beharko dira:

**6.1.1.- Ariketa bakarra:** nahitaezkoa eta baztertzaila hautagai guztientzat.

Hautapen prozesuan, ariketa bat egin beharko da, zero (0) eta hogeita (20) artean baloratuko dena eta bi zati izango dituen, bat, teorikoa, eta, bestea, praktikoa. Ariketa egiteko deialdi bakarra egingo da, eta hautagaiek, gehienez ere, hiru ordu izango dituzte egiteko.

##### **6.1.1.1.- Lehenengo zatia (teorikoa)**

Hainbat erantzun aukera izango dituzten 50 galderekin osatutako galdetegi bati erantzun beharko zaio idatziz. Galderak dagokion lan poltsaren eranskinean (II-XI eranskinak) jasotako gai zerrendari buruzkoak izango dira.

Ez dira zigortuko erantzun okerrak edo erantzun gabeko galderak.

Lehen zati hau zerotik (0) hamar (10) puntura kalifikatuko da, eta sei (6) puntu lortu beharko dira (30 erantzun zuzen) gainditzeko.

Lehen zati horren puntuazio osoa lortzeko, gainditu duten hautagaiek lortutako puntuazio zuzenak azken puntuazio bihurtuko dira, eta horretarako banaketa

proporzionala egingo da; hartara, hamar (10) puntuko azken puntuazioa bat etorriko da berrogeita hamar (50) puntuko puntuazio zuzenarekin. Eragiketa horiek guztiak hautagaien identitatea ezagutu gabe egingo dira.

#### 6.1.1.2.- Bigarren zatia (praktikoa)

Kasu praktiko bat egin beharko da, epaimahaiak gai zerrendari lotuta proposatuko dituen hiru kasuen artean.

Bigarren zati hau zerotik (0) hamar (10) puntura kalifikatuko da, eta bost (5) puntu lortu beharko dira gainditzeko.

6.1.2.- Oposizioaren ariketa gainditzeko, guztira, gutxienez, hamaika (11) puntu lortu beharko dira, zati bakoitzerako finkatutako gutxieneko puntuak lortzeaz gain.

6.1.3.- Epaimahaiak zehaztu eta iragarriko ditu probak egiteko egunak, orduak eta lekuak, web orriaren bidez.

6.1.4.- Hautagaiek ariketa egiteko deialdi bakarra jasoko dute. Probetara joaten ez direnak kanpoan geldituko dira, behar bezala justifikaturiko eta epaimahaiak onarturiko ezinbesteko kasuetan izan ezik.

6.1.5.- Hautagaiek beren identitatea egiaztatzeko dokumentua (NANa, pasaporte edo gidabaimena) eramango dute probara, eta edozein epaimahaikidek eskatu ahal izango die horiek egin bitartean.

6.1.6.- Euskarako proba egin nahi duten hautagaiek hala adierazi beharko dute, eskaera egiteko inprimakian. Antolakuntza arrazoiak direla eta, hautagaien batek eskatu ezean, probak gaztelaniaz egingo dira.

6.1.7.- Oposizio fasearen behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun baliouduneko epea jarriko da erreklamazioak aurkezteko.

## 6.2.- Merezimenduen lehiaketa

6.2.1.- Oposizio faseko behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun baliouduneko epea irekiko da, merezimenduen lehiaketa fasean zenbatu daitezkeen merezimenduak aurkeztu eta egiaztatzeko, halakorik bada.

6.2.2.- Fase honetako kalifikazioa, gehienez ere, sei (6) puntukoa izango da, eta, hura zehazteko, eskuratuko puntu guztiak batuko dira, POLTSA BAKOITZARI DAGOKION ERANSKINEAN adierazitako eginkizunei lotutako merezimenduen baremo honen arabera:

- a) Deialdi honetako lan poltsa bakoitzaren eginkizunei –dagozkion eranskinean eta I. taldean zerrendatuta daudenak- lotutako lan esperientzia (gehienez ere, 3,5 puntu). Urtebete bakoitzeko 0,75 puntu.



Proporzionalki balioetsiko dira urtebetetik beherako aldiak, jardunaldi osoen azpiko jardunaldiak eta funtzio horiek maila apalagoko talde edo kategorietan bete izana.

- b) Prestakuntza akademikoa (gehienez ere, 2,5 puntu), **deialdi honetako lan poltsa bakoitzerako adierazitako eginkizunei lotutako gaietan**, honako baremo honen arabera:
- Goi mailako beste titulu bat: 1,5 puntu.
  - Master ofizial bat edukitzea, Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluen Erregistroan (RUCT) daudenen artean: 1 puntu.
  - Unibertsitateko berezko tituluren bat edukitzea: 0,5 puntu.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzak. Gehienez puntu 1, irizpide honen arabera:

- Frantsesaren, ingelesaren edo alemanaren Hizkuntza Eskola Ofizialaren 5. maila edo B2a (Hizkuntzen Europako Esparrua): 0,50 puntu, hizkuntza bakoitzeko. Balioespena egiteko, hizkuntza ez ofizialen baliokidetasunei buruzko Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Erabakian ezarritako mailen baliokidetasunak hartuko dira kontuan.

6.2.3.- Zerbitzu denbora dokumentuen bidez egiaztatuko da. Zenbatzeko erreferentzia gisa, kontuan hartuko dira soilik Gizarte Segurantzaren Lan Bizitzaren Txostenean adierazitako egunak, baldin eta dokumentuen bidez (kontratuaren fotokopia edo enpresa ziurtagiria) jasota badago aldi hori deitutako poltsari lotutako kontratazio bati dagokiola. Epaimahaiak hautagaiei dokumentu osagarriak aurkezteko eska diezaieke, argi geratu ez bazaio alderdi hauetakoren bat: betetako lanpostuaren izena eta kategoria profesionala, kontratazio aldien hasiera eta amaiera data, kontratatutako jardunaldiaren ehunekoa eta/edo postuaren funtzio nagusiak.

Tituluak egiaztatzeko, tituluaren fotokopia edo, bestela, titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Bai bata bai bestea eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoak izan behar dira, eta, horrela izan ezean, titulua ez da merezimendutzat hartuko.

Hizkuntzaren ezagutza maila egiaztatzeko, tituluaren fotokopia aurkeztu beharko da, eta titulua eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik lortutakoa izan beharko da. Ez da probarik egingo hizkuntzen ezagutza maila egiaztatzeko.

6.2.4.- Lehiaketa fasea ez da baztergarria izango, eta fase horretan lortutako puntuazioak ez du balio oposizio faseko ariketak gainditzeko.

6.2.5.- Merezimendu lehiaketaren behin-behineko emaitzak argitaratu ondoren, bost egun balioduneko epea jarriko da erreklamazioak aurkezteko.

**6.3- Euskara.-** Euskara merezimendutzat hartuko da, EAEko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan jasotakoaren arabera.

Honako puntuazio hau lor daiteke, gehien jota:

4. HE (C2): 5,20 puntu
3. HE (C1): 3,90 puntu
2. HE (B2): 2,60 puntu
1. HE (B1): 1,30 puntu

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko proba bat egingo da, HE bakoitzeko, eta hautapen prozesu bakoitzaren oposizio aldiaren behin betiko emaitzak argitaratu ondoren egingo dira probak. Oposizio aldia gainditu dutenei bakarrik egingo zaizkie probak, eta soilik eskaeran adierazitako HEri buruzkoa.

HAEek, bere antolakuntza eta funtzionamendu arauen arabera, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proben datak zehaztuko ditu.

Hizkuntza eskakizunak baliozkotzeko, kontuan hartuko da EAEko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan ezarritakoa, baita euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntza Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin partekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritakoa ere.

Hizkuntza eskakizunak edo horien baliokideak egiaztatzeko dokumentuak euskarazko ariketa idatzia egiteko egunera arte aurkez daitezke, egun hori barne.

6.4.- Epaimahaiak egokitu egin beharko ditu ariketa egiteko denbora eta baliabideak, baldin eta hautagaien batek eskaera egitean ezgaitasunen bat adierazi eta hura 3.6. oinarrian ezarritakoaren arabera egiaztatu badu eta, horren ondorioz, ariketa egokitzeko eskaria egin badu; hartara, hautagai horrek aukera berdintasunean egin ahal izango du ariketa; betiere, horren ondorioz probaren edukia desitxuratzen ez bada, aldi baterako langileen deialdi batean beharrezkoa den premiazkotasunari eta arintasunari kalterik egiten ez bazaio eta eskatutako gaitasuna murriztu edo kaltetzen ez bada.

6.5.- Lehiakideen sailkapen ordena oposizio fasean, merezimenduen lehiaketan eta, hala behar bada, euskara fasean lortutako puntu baturak emango du. Berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera erabakiko da hurrenkera:

1. Oposizio fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde.
2. Ariketa praktikoan puntuazio handiena lortu duenaren alde.
3. Ariketa teorikoan puntuazio handiena lortu duenaren alde.
4. Lan esperientziaren atalean puntu gehien egiaztatzen dituenaren alde.
5. Tituluen atalean puntu gehien egiaztatzen dituenaren alde.

Irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketak bere horretan jarraitzen badu, eskaeraren sarrera eta erregistro datari erreparatuko zaio.

6.6.- Prozesuari lotuta dauden eta hautagaiei eragiten dieten egintza guztiak argitaratuko dira laugarren oinarriaren lehen atalean adierazitako web orrian. Argitalpen horiek interesdunenei egin beharreko jakinarazpen pertsonalak

ordezkatuko dituzte, eta eragin berberak izango dituzte, 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 b) artikulua aurreikusitakoaren arabera.

### **Zazpigarrena.- Epaimahaiaren proposamena.-**

Hautaketa prozesuak amaitu ondoren, epaimahaiak hautagaien sailkapena egingo du, guztira lortutako puntuaren arabera, eta hautagai bakoitzak atal bakoitzean lortutako puntuazioa zehaztu du. Gero, UPV/EHUko Gerentziari emango dio zerrenda, prozesuen gaineko behin betiko erabakia har dezan.

Epaimahaiaren proposamenen aurka gorako errekurtsua jarri ahal izango da UPV/EHUko Gerentziaren aurrean, hilabeteko epean, horiek argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lan poltsan, honako hauek adieraziko dira.

- Kide guztien izen-abizenak.
- Kide bakoitzaren hurrenkera zenbakia.
- Deialdi honetan parte hartu duten kideek, baremoa aplikatuta, lortutako puntuazioa.
- HAEEK egiaztatu edo homologatutako hizkuntza eskakizuna, eta egiaztatutako ingeles, frantses edo alemaneko ezagutza maila.

### **Zortzigarrena.- Gorabeherak.-**

8.1.- Epaimahaiak eskumena du aurkeztutako zalantzak argitzeko eta oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztiaren gainean behar diren erabakiak hartzeko, hautapen prozesua bide onetik joan dadin.

8.2.- Deialdiari, oinarriari, eta oinarrietatik nahiz epaimahaiaren jardunetik sortutako egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legean aurreikusitako kasuetan eta moduan.

8.3.- Deialdi honi buruzko informazioa UPV/EHUko AZPkoen Zerbitzuko Langileak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Atalean emango da (Errektoregoaren eraikina, beheko solairua, Leioako Campusa, Bizkaia).

### **Bederatzigarrena.- Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.-**

9.1.- Lan poltsatik lanerako deia jasoz gero, bigarren oinarrian hautapen prozesuan parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko dokumentuak aurkeztuko ditu hautagaiak, horretarako ezarritako epean.

9.2.- Epe horretan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, hautagaiak ez badu aurkezten dokumentazioa edo ez badu egiaztatzen baldintza guztiak biltzen dituela, hautatuen zerrendatik kanpo geratuko da automatikoki.